

ARGINE AREITIO • PAUL CABALLERO



MALEN

Intsektuen munduan



PLISTI-PLASTA

PLISTI-PLASTA

PLISTI-PLASTA

Kontuz!!
Leku arriskutsuan zaude!
Jarri nire bizkarrean, azkar!



Ez nekien erleak
lurpean bizi direnik...

Ni bezalakoak bai.
Familia asko eta oso
ezberdinak gara
erleak, neska,
gizakiak bezala.

Non daude
gainerako erleak?
Eta non gordetzen
duzu eztia?

Eztia?
Neuk ez dut
horrelakorik, eta hemen
bakarrik bizi naiz.

Bidean ikusitako POLINIZATZAILEAK

Erle hosto-ebakitzailerak.

Eroritako enborretako eta lurreko zuloetan egiten ditu habiak. Hosto zatiekin apaintzen ditu. Bakartia da, gehienetan eme bakoitzak habia bana egiten du.



Erlastarrak. Sagu-zuloetan, belarren artean edota zuhaitzetan egiten dituzte habiak. Erlastar espezie nahiko dago Euskal Herrian: *Bombus terrestris*, *Bombus lucorum*, *Bombus pascuorum*...

Marigorringoak. (*Coccinella septempunctata*) Gorriz eta zazpi puntu beltzez jantzitako kakalardo hau sarritan ikusi duzu, ezta? Zorriak eta akaroak jaten ditu gehienbat, baina batzuk polenaz eta nektarraz ere elikatzen dira.

Tximeletak. Bazenekien beldar erraldoi hori tximeleta bihurtuko dela? Lirio-tximeleta (*Iphiclides feisthamei*) izango da. Euskal Herriko ikusgarrienetarikoa da. Mandaperrexilean, berriz, *Papilio machaon* tximeletaren larbak ikusi ditugu. Magia egiten dute tximeleta bihurtzeko? Ez. Metamorfosia da, itxura ugari eta oso ezberdinak hartzen ditu bere bizi-zikloan.


Kakalardoak. *Oedemera nobilis* sarritan ikusiko duzu. Metal kolore berde urdinxka du eta arren hankak oso lodiak dira. Polit-politak!

Arte zahar eta handia.

Bi mende baino gehiago dira arte zahar hori jaio zela. Lehen egurra, ezkurak eta ikatza eskaintzen zituen; orain, egur hilda eta zulo mordoak eskeintzen du. Hainbat animalia, landare eta onddo espezialista bizi da bere lepotik. Zaindu behar ditugu!



Oso bizirik dagoen hildakoa. Zuhaitzak hiltzen direnean ekosistema bihurtzen dira. Barruan egin dezake etxea azeriak, sugeak edo untxiak, eta elikagai bila datoz armiarmak, ehunzangoak, kukurutxak... eta intsektuak!. Arretaz begiratu, beharbada *Cetonia aurata* kakalardo deigarria ikusiko duzu, enbor hiletan helduek arrautzak jartzen baitituzte.






Zer da INTSEKTU bat?

Oso ugariak eta askotarikoak dira eta mundu osoan bizi dira, ia edozein ekosistematatan. Esaterako, inurritegi handi batean 20 milioi inurri bizi daitezke (Euskal Herri osoan 3 milioi lagun bizi gara!!)

Hala eta guztiz ere, kalean eta naturan ikusten dituzun animalia nimeniño eta arraro guztiak ez dira intsektuak. Zer hartu behar duzu kontuan? Erraza da!!



Intsektu talde arruntenak hauexek dira: **koleopteroak** (kakalardoak), **himenopteroak** (erleak, erlastarrak, liztorrak, inurriak...), **lepidopteroak** (tximeletak eta sitsak), **dipteroak** (euliak, eltxoak...), **ortoopteroak** (matxinsaltoak eta kilkerak) eta **odonatuak** (burruntziak eta sorgin-orratzak).



Beraz, hori jakinda, liburuan zehar intsektuak EZ diren animaliak aurkitzeko gai izango zara? Aurrera, goazen bila!

Nola egin INTSEKTUEN ETXE BAT

Hotela izugarria eros liteke intsektuak lorategira edo parkera erakartzeko. Neguan han egingo dute lo, erle bakartiak, marigorringoak, liztorrak... babestuta sentituko lirateke, edo habia bertan eraikiko lukete. Baina, ez ote da ideia hobeagoa zuk zeuk egitea?

MATERIALA

- Tomate lata bat
- Lodiera ezberdineko kainaberak
- Zerra
- Soka bat

Tomate laturen altuera kontuan hartuta, kainaberak moztu zerrarekin. Lata baino bi zentimetro altuagoak izan behar dira. Gero kainaberak latan sartu mukuru bete arte, estu-estu, buruz behera jarritz gero ez dira jausi behar. Lotu soka laturen inguruan. Erabaki zein tokitan jarriko duzun: hobe lurratik altuera batera, eguzkira begira, haizetik babestua eta loreetatik hurbil. Lotutakoan, horizontalean geratu behar du.



Apaindu poteak nahi duzun bezala.

Marrubi kutxarekin ere egin dezakezu.

Bestetik, lorategiko bazter batean, hosto lehor eta landaredi piloa utzi dezakezu, kakalardoek eta sitsek maiteko dute eta bertan babestuko dira. Ekosistema galanta eratuko duzu, lurraren orekan paper garrantzitsua duten ornogabe batzuentzako etxea izango baita.

Lorategi eta baratzeke HAZIAK GORDE

Bertoko landareak landatu behar dituzu, ur gutxiago beharko dutelako eta bertoko intsektuak erakartzeko aproposak direlako. Hobe tamainan eta koloreetan askotarikoak badira.

1 Zelan lortu eta gorde haziak? Loreak hil arte itxaron beharko duzu. Hona hemen bi adibide erraz. Jo geldiro izpilikuaren (*Lavandula sp.*) lore sikuak paper baten gainean eta hazi beltz ñimiñoak askatuko ditu. Ilen kultibatuaren (*Calendula officinalis*) loreak eskuekin estutzean zizare itxura duten haziak lortuko dituzu. Petaloak, hostoak eta zurtoinak kendu.

2 Haziak egunkari paper batean jarri eta bizpahiru egun itxaron ondo lehortu arte. Gero, beirazko pote batean edo paperezko zorro batean gorde.

3 Etiketatu (lorearen izena/data). Gorde (4 urte arte) leku ilun, freskoa eta lehorrean.

4 Udaberria da ereintzeko sasoia. Lurra prestatu: belarrak eta sustrai zaharrak kendu, lurra aitzurtu, haziak zabaldu (multzotan landatu, erakargarriagoak dira intsektuentzat), lur-geruza mehea jarri gainetik eta ureztatu. Zaindu hezetasuna hurrengo egunetan, landareak hazi arte.

5 Bestela, arrautza-ontzi batekin hazitegi bat egin dezakezu. Horrelakorik eginez gero ere, argia eta hezetasuna beharko dute haziak. Landareak sortu eta handitzean, lurrean edo loreontzian balkoian landatu. Lorez beterik egotean intsektu pila etorriko dira!

